



BITERI KULTUR ETXEKO IKASTAROETAN IZENA EMATEKO ARAUAK, 2023-2024

1.- Matrikulatzeko epea:

Matrikulatzeko egunak: irailaren 4tik 15ra, biak barne, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Ikastaroan izena eman dutenak dauden plazak baino gehiago badira, zozketa bidez esleitu dira plaza horiek. Zozketa irailaren 19an egingo da eguerdiko 12:00etan Biteri kultur etxean. Ikastaroren batean izena eman duten ikasleen kopurua gutxiengora iristen ez bada, ikastaroa bertan behera gera daiteke. Beraz, ikastaroak aurrera atera ahal izateko, gutxieneko kopurua beharko da, salbuespenak salbuespen.

Ikasturtearen hasiera: urriaren 2a

Ikasturtearen amaiera: maiatzaren 31a (haurrek) / ekainaren 13a (helduek)

Oporrak: abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra (biak barne)
otsailaren 10, 12 eta 13a (haurrek, Inauteriak)
martxoaren 28tik apirilaren 7ra (biak barne)

Helduei zuzendutako ikastaroak

Egur taila: 8/14; **Pintura:** 8/20; **Zeramika:** 9/12; **Patchwork:** 8/16; **Arropa konponketa:** 8/14;
Altzarien itxura berritzea: 8/14; **Dantza garaikidea:** 8/12; **Dantza latinoak:** 8/18; **Tai chi kung:** 8/18;
Yoga: 8/20; **Antzerkia:** 8/12; **Argazkigintza digitala:** 8/14; **Sukaldaritza:** 9/12; **Mindfulness:** 8/12;
Kosmetika naturala: 8/12; **Idazketa tailerra:** 8/12

Haur eta gazteei zuzendutako ikastaroak

Pintura-marrazketa: 8/14; **Dantza garaikidea:** 8/12; **Hip hop dantza:** 8/14;
Antzerkia: 8/12; **Sormenarekin jolasean:** 6/10

2.- Ordainketa:

Ikastaroa behin hasita ikasle guztiek dagokien tasaren zenbateko osoa ordaindu beharko dute, egindako matrikularen arabera eta horrela egingo da:

- 1.- %34 ikastaro hasieran.
- 2.- %33 abenduaren hasieran.
- 3.- %33 martxoaren hasieran.

Ordainketa interesatuak adierazitako banku kontuaren bidez egingo da

3.- Ikastaroa hasiz gero ikasle guztiek egindako matrikularen arabera dagokien tarifa osoa ordaindu beharko dute. Edozein ikastaro edo klasetan baja hartu behar dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko edo ezabatuko. Salbuespenak izan daitezke jardueren garapenean eragina duten berezko gaixotasunak eta ikasturte erdia edo erdia baino gehiago luzatzen diren lan edo ikasketa arazoak. Salbuespen hori alkateak (edota Ogasun zinegotzi delegatuak) erabakiko du, eta horretarako ezinbestekoa izango da medikoaren txostenaren bidez , enpresaren txostenaren bidez edo zentro ofizialaren bidez egiaztatzea.

4.- Ustekabeko egoerak. Ustekabeko zirkustantzia bat gertatuz gero, hala nola osasun-krisia, ikastaroaren antolaketan aldaketak egon daitezke

- Zerbitzua edo klasea modu presentzian emateko aukerarik ez dagoenean eta on line ematen denean dagokion tasaren kuota %25eko hoberia aplikatuko da.
- Aforoagatik eta halaberrez zerbitzua edo klasea presentzian eta on line denean tasaren %100eko kuota kobratuko da.
- Udalak zerbitzua edo klasea, modu presentzian edota on line ematerik ez duenean, etenda egongo den epeari dagokion tasa zatia ez da kobratuko.
- Aforo mugagatik zerbitzua edo klasea orduak murriztu behar badira (presentzian edo on line edo bietan) murrizketaren proportzio berdinean murriztuko da tasaren kuota.

5.-Murrizketak: familia unitateko diru-sarreraren arabera murrizketak jaso ahal izango dira, Tasa eta Prezio Publikoen salbuespenei buruzko erregelamendua arautzen duen Ordenantza Fiskalaren arabera egingo da.

6. Ikastaroen hizkuntza

EUSKARAZ eskaini diren ikastaroetan parte hartzeko ezinbestekoa da gutxieneko ulermen maila izatea. Hizkuntza zehaztuta ez duten ikastaroak ikasleen euskara mailaren arabera emango dira.

7.- Ikastaro batzuetan beharrezkoa den aparteko materiala ikasleak hartuko du bere gain.

Hernani, 2023ko irailaren 1a

Datuen Babesa

Tratamenduaren arduraduna: Hernaniko Udala

Helburua: Aurkeztutako eskaera izapidetzea eta kudeatzea, dagokion udal departamentuaren bitartez

Eskubideak: Hernaniko Udalean datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko eta ezabatzeko, baita beste eskubide batzuk ere. Gudarien plaza 1, 20120 Hernani, Gipuzkoa. Erreferentzian adierazi: Datuen Babesa

Informazio gehigarria: 1. eranskina: Datuen Babeserako informazio gehigarria